

# 2024KO URTEKO PLANA

## eLankidetza

Gasteizen, 2024ko urtarrilean

## Sarrera

2022ko abenduaren 20an, Gobernu Batzordeak 2018-2021erako IV. Gida Plana hiru urtez luzatzea (2022-2024) onartu zuen. Luzapen-dokumentu horrek 2024ari begira ezarritakoa zehazten du urteko plan honek.

2024an, hainbat urtetarako plangintza-prozesu berriari ekin beharko genioke. Hala, urte lehen seihilekoan, 2018-2024rako IV. Gida Planaren amaierako ebaluazioa egingo dugu eta etorkizuneko plangintzarako hainbat elementu izateko gogoetei ekingo diegu. Konfiantza osoa dugu 2024ko mugarrietako bat izango dela Eusko Legebiltzarrak Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legea onartzea. Hori horrela izanez gero, 2024ko bigarren seihilekoan hainbat urtetarako plangintza estrategiko berria definitzeko prozesuari ekitea espero dugu, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen baitan.

Ebaluatzeko eta planifikatzeko jarduera intentsu horrez gain, 2024an, erantzunkidetasunaren aldeko apustuarekin aurrera egiten jarraituko dugu eta eragile publiko eta sozialek lankidetzapolitikan duten inplikazioa zabaltzen jarraitzen ahaleginduko gara, tokiko garapenaren eta garapen globalaren zerbitzura jarri ahal izateko dinamizatzea lortzen dugun ahalik eta gaitasun eta jakintza gehien. Alde horretatik, eta beste ekintza batzuen artean, programen tresna berria abiaraztea nabarmendu behar dugu.

Urteko plan hau 2018-2024rako IV. Giza Planaren ardatzen eta elementuen arabera antolatuta dago, eta gizarte-eraldaketarako heziketari buruzko atal bat gehitu diogu, IV. Gida Planaren herritartasun kritikoaren ikuspegiarekin lotuta.

Azkenik, nabarmendu behar dugu urteko plan honek 2018-2024rako IV. Gida Planean zein eLankidetzan indarrean dauden gainerako dokumentu estrategikoetan eskuratutako konpromisoerantzuten diela. Jarraian, plangintza horien barruan gehien nabarmentzen diren ekintzak aipatuko ditugu.

## 1. Garapen jasangarrirako politiken koherentzia

2024an, aurrera egiten jarraituko dugu garapenerako politiken koherentzia Eusko Jaurlaritza barruan sustatzeko. Horretarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Batzordearen baitan garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldearen saioak egitea aurreikusten dugu, beste ekintza batzuen artean, eta Eusko Jaurlaritzako ailak lankidetzarako ekimenetan txertatzen jarraituko dugu. Gainera, Euskadiko erakundeen arteko lana indartuko dugu, ekimen zehatzak sustatuz.

Euskaditik harago, hurrengo urteetan ekimenak eta gogoetarako guneak sustatzen eta sakontzen jarraituko dugu, Estatuko eta Europako lankidetzak deszentralizatuko beste eragile batzuekin batera.

### Arkitekturaren garapena

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--|--------------------------------|
| Garapen jasangarrirako politiken koherentziaren arloan Eusko Jaurlaritzak urtean zehar egiten dituen estrategiak eta ekimenak planifikatzen laguntzea.                     | urtean zehar                   |
| Garapenerako Lankidetzaren Euskal Batzordeak garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldea sustatzea. Lan-saioak eta prestakuntza-saioak (hiru) urtean zehar. | urtean zehar                   |
| Agenda 2030 eta Trantsizio Sozialeko Idazkaritzarekin koordinatzea urtean zehar.   | urtean zehar                   |
| Eusko Jaurlaritzako langileentzako eta goi-karguentzako prestakuntza-eskaintza diseinatzea   | laugarren lauhilekoa           |

### Eusko Jaurlaritzako sailak haien jarduketa-arloekin lotutako lankidetzak-ekimenetan txertatzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b>           |
|---|--|
| Eusko Jaurlaritzako pertsonak ezagutza mobilizatzeko esperientzietan parte hartzea. Eusko Jaurlaritzako sei zuzendaritza, organismo eta erakundetako hogeit hamar pertsona  | urtean zehar                             |
| Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza, erakunde edo organismo batzuekin koordinazio-jarduketak sustatzea. Hamaika jarduketa<br><i>Lankidetzarako eragileen eta klima-aldaketaren eta ingurumenaren jasangarritasunaren arloan lan egiten duten eragileen arteko trukerako eta elkar ezagutzeko gune berria sortzea: Klima Topaketa</i> | urtean zehar<br><br>bigarren seihilekoan |

|  |                             |
|--|-----------------------------|
| <p>Agenda 2030eko Lehetasunen Euskal Programaren kanpo-dimentsioari ekarpena egitea<br/> <i>Osasun Globala (Osasun Sailaren, Osakidetza, eLankidetzaren eta AIDaren jarduketara bateratua Ginea-Bissau): ekimenaren garapena</i></p> | <p>urtean zehar</p>         |
| <p><i>Hezkuntzaren Auzolana</i><br/> <i>Afrikan hezkuntzako ekimen berri bat aztertzea</i></p>   | <p>bigarren seihilekoan</p> |
| <p><i>Palestinako herritarrekin lanbide heziketaren inguruko ekimena sustatzea (UNRWA)</i></p>   | <p>bigarren seihilekoan</p> |

Erakundeen arteko artikulazio eta koordinazio handiagoa

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b>  |
|--|---|
| <p>Abian dauden Euskadiko beste administrazio batzuekin egindako erakundeen arteko ekimenak<br/> <i>Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria</i><br/> <i>Eguneraketa eta urteko memoria</i><br/> <i>Gutxienez udal berri bat sartzea</i><br/> <i>2014 eta 2023 artean euskal lankidetzaren publikoari buruzko produktu analitiko bat egiteko oinarritzko dokumentua</i></p> | <p>hirugarren hiruhilekoa<br/>         urtean zehar<br/>         bigarren seihilekoan</p>       |
| <p><i>AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: Ura eta saneamendua</i><br/> <i>AKUALen genero-ikuspegia indartzeko eta El Salvadorren ekimena egiteko aholkularitza</i><br/> <i>AKUALen komunikazio-estrategia definitzea</i><br/> <i>AKUALen hirugarren edizioa abian jartzea</i></p>  | <p>lehenengo seihilekoa<br/>         lehenengo seihilekoa<br/>         bigarren seihilekoan</p> |
| <p><i>Erakundeen arteko ekimena St. Louisen (Senegal): ulermen-memoranduma sinatzea eta ekimen pilotua sustatzea</i></p>   | <p>urtean zehar</p>   |
| <p>Beste autonomia erkidego batzuetako lankidetzaren deszentralizatuko eragileekin lankidetzaren sustatzea eta indartzea<br/> <i>Guatemalan ezagutza mobilizatzea, Garapenerako Lankidetzaren Kataluniako Agentziarekin artikulatuta, desagertutako pertsonen memorian eta bilaketan jarduteko</i></p>   | <p>urtean zehar</p>   |
| <p><i>Autonomia erkidegoen arteko topaketak eta lankidetzaren</i></p>  | <p>lehenengo eta hirugarren lauhilekoa</p>  |

*AKUALen hirugarren edizioan Nafarroako uraren eragileak eta lankidetzarako eragileak sartzeko azterketa egitea*

Trukea Europako lankidetzaren deszentralizatuko eragileekin, PLATAFORMAarekin lankidetzan. Jardunaldi bat

lehenengo lauhilekoa

otsailean

## 2. Eremu estrategikoak

Eremu estrategikoen bitartez erronka komunak identifikatzeko eta erantzun integralagoak eta elkar landuagoak lortzeko aurrerapausoak emateko prest dauden eragileekin lan egiteko modu berriak sustatu nahi izan ditugu. 2024an zehar, esperientziari buruzko gogoeta-prozesua amaituko dugu, datozen urteetarako plangintza egiteko elementuak izateko.

Bi eremu estrategiko abian jartzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: Cauca Iparraldeko (Kolonbia) ekimenaren bigarren fasearen jarraipena                              | urtean zehar                   |
| AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: Kolonbiako mahaia. <i>Elkartzeko, esperientziak trukatzeko eta prestakuntzarako guneak (hiru)</i> | urtean zehar                   |
| <i>Eragile berriak sartzea</i>  | urtean zehar                   |

Eremu estrategikoen esperientziaren ebaluazioa

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Eremu estrategikoei buruzko gogoeta. Ondorioak eta gomendioak jasotzen dituen laburpen-dokumentua | lehenengo sei hilekoa          |

## 3. Tokikoa-globala

Ardatz honetan, 2024rako mugarri nagusia da programen tresna berriaren lehen deialdia egitea. Tresna horren ardatz nagusia ikuspegi tokikoa-globala da. Gainera, tokikoa-globala ikuspegiari buruzko barne gogoeta-prozesua garatzea espero dugu, eLankidetzak horretarako duen ulermena eta irismena nolakoak diren zehazteko.

Tokikoa-globala ikuspegia sakontzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b>               |
|--|--|
| Tokikoa-globala esparruaren eta irismenaren zehaztapena<br><i>Ikuspegiari buruzko barne-gogoeta</i><br><i>Laburpen-dokumentua.</i> | lehenengo seihilekoa<br>bigarren seihilekoan |
| Programen tresna berriaren deialdia  | lehenengo seihilekoa                         |

**4. Giza eskubideak**

Urtea hasteko giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona, erakunde, komunitate eta sareentzako 2024-2025erako Babeserako Bide Orria eguneratuko dugu. Esparru horretan, babesaren arloko ikaskuntza-lerroa sustatuko dugu bereziki, beste gauza batzuen artean.

Babesaren arloko lan espezifikoaz gain, barne gogoeta-prozesu globalagoa sustatuko dugu giza eskubideen arloan, eLankidetzak arlo horretan egiten duen lanaren esparrua definitzeko.

Babesean oinarritutako ekimenen lehenespena

Emandako funtsen % 4 giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, komunitateak, erakundeak eta sareak babesteko ekimenei laguntzera bideratuko dugu. Gainera, Afrikako lana eta babesa handitzeko, 2024rako jarduketara hau aurreikusi dugu:

| <b>Ekintza nagusiak</b>                             | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Afrikari eta babesari buruzko jardunaldiak garatzea | hirugarren lauhilekoa          |

Babesaren arloan koordinatzeko eta ikasteko guneak

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b>               |
|---|--|
| Babesaren arloko ikaskuntza-linea:<br><i>Babesaren arloko esperientzien eta</i><br><i>jardunbide egokien laburpen-dokumentua</i><br><i>Trukerako eta ikasteko gunea</i> | lehenengo seihilekoa<br>bigarren seihilekoan |

eLankidetzak babeserako duen rola sustatzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Euskal Programa<br><i>2024ko ediziorako laguntza</i> | urtean zehar                   |

|   |   |
|---|---|
| <p><i>Diagnostiko-prozesuaren hobekuntzak ezartzea</i></p> <p>Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babeserako komunikazio-protokoloa</p> <p><i>Protokoloaren pilotua abian jartzea</i></p> <p><i>Babesaren arloko ekintza komunikatiboak</i></p> <p>2024-2025 aldirako Babeserako Bide Orriaren eguneraketa</p> <p><i>Babesaren arloan lan egiten duten euskal erakundeekin gogoeta egiteko gunea</i></p> <p><i>Dokumentuaren zehaztapena</i></p> | <p>urtean zehar</p> <p>bigarren hiruhilekoa urtean zehar</p> <p>lehen hiruhilekoa</p> <p>bigarren hiruhilekoa</p> |
|---|---|

eLankidetzak giza eskubideen arloan egindako lanaren esparrua indartzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| <p>eLankidetzak giza eskubideen arloan egindako lanaren esparruri buruzko gogoeta</p> <p><i>Posizionamenduaren dokumentua (babesa, herri indigenak, trantsizioaren memoria eta justizia, espazio demokratikoaren itxiera, etab.).</i></p> | <p>bigarren lauhilekoa</p>     |

## 5. Generoa

2024an, beste ekintza batzuen artean, gure 2021-2024rako Genero Berdintasunerako Plana berrikusteko barne-prozesua egingo dugu; hala badagokio, aldi berri baterako eguneratzeko. Gainera, ikaskuntza, gogoeta eta trukea sustatuko ditugu emakumeen ahalduntzearen, genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketaren eta sexu- eta genero-dibertsitatearen arloetan.

Emakumeen ahalduntzearen ezagutzan sakontzea eta zeharkako ikuspegia eta sektoriala aplikatzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b>                       |
|---|--|
| <p>2018tik lagundutako genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketako prozesuen sistematizazioa.</p> <p><i>Laburpen-dokumentua (alderdi kuantitatibo eta kualitatiboak eta 2018ko dekretua aldatzeko proposamenak)</i></p> <p><i>Dokumentuaren zabaltzea</i></p> | <p>lehen hiruhilekoa</p> <p>bigarren hiruhilekoa</p> |
| <p>Hezkidetzari buruzko garapenerako estrategia positiboan XIV. jardunaldiak</p>  | <p>martxoan</p>                                      |
| <p>Genero-ekitatearen aldeko antolamendu-kulturaren aldaketari lotutako prestakuntzarako eta</p>  | <p>laugarren hiruhilekoa</p>                         |

esperientziak trukatzeko jardunaldia (IX. jardunaldiak)

Emakumeen ahalduntzerako ikaskuntza-lerroa: jardunbide egokien identifikazioa

bigarren seihilekoan

Emakumeen ahalduntzerako eta erakunde feministak babesteko ekimenak lehenestea

Emandako funtsen % 20 emakumeen ahalduntzea helburu duten ekimenentzako gordeko dugu eta % 10 Hegoaldeko erakunde feministentzat.

Sexu- eta genero-dibertsitatearen ikuspegia txertatzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b>               |
|---|--|
| Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzeari buruzko gogoeta<br><i>Posizionamenduaren dokumentua</i><br><i>Dokumentuaren zabaltzea</i> | bigarren hiruhilekoa<br>bigarren seihilekoan |

eLankidetzan generoaren zeharkakotasunaren estrategia indartzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--|--------------------------------|
| Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren protokoloa ezartzea eta prebentzio-programa egitea.               | urtean zehar                   |
| 2021-2024rako Genero Berdintasunaren Aldeko I. Plana egitea eta, hala badagokio, aldi berri baterako eguneratzea | bigarren seihilekoan           |

## 6. Afrika

Aurtengo mugarri nagusia da lehen seihilekoan zehar gure lana Afrikan sustatzeko bide-orria definitzea. Dokumentu horrek 2024-2025 aldirako lan-ildoak eta ekintza espezifikoak zehaztuko dituen arren, urteko plan honetan 2024an garatu ditugun neurri eta ekintza batzuk aurreratuko ditugu: (i) Afrikan ekimenak onartzeko neurri positiboak sustatzea; (ii) gaitasunak indartzearen sustapena; (iii) sentsibilizazioa; eta (iv) hainbat arlotan ekimen propioak sustatzea.

Afrikako geografia lehenestea

Emandako funtsen % 25 Afrikan garatzen diren ekimenak egiteko esleitutako funtsentzat gordeko dugu. Horretarako, funts espezifikoaren erreserba bat aurreikusi dugu tresna bakoitzeko (xehetasunak 13. Dirulaguntzen kudeaketa atalean).



Afrikan oinarritutako eta Afrikako eragileekin egiteko ekimenen sustapena

| <b>Ekintza nagusiak</b>                                     | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Afrikako lana sustatzeko 2024-2025erako bide-orria zehaztea | lehenengo sei hilekoa          |

Eragileak indartzeko elkartzeko eta ikasteko guneak sortzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b>  |
|---|---|
| Gaitasunak indartzea<br><i>Euskadiko eragileen prestakuntza</i><br><i>Tokiko erakundeen prestakuntza Senegalen, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta Saudi Arabiako Errepublika Demokratikoan</i><br>Migratzaile afrikarren elkarteekiko hurbilketa, topaketa eta ekimenen garapena.<br><i>Elkartzeko eta gogoetarako gunea</i><br><i>Afrikaren Eguna</i><br><i>Afrikaldia</i> | bigarren sei hilekoan<br><br>urtean zehar<br><br>lehenengo sei hilekoa<br>Maiatzak 25<br>hirugarren hiruhilekoa |

eLankidetzaren rola sustatzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b>   |
|--|----------------------------------|
| Ekimen propioak garatzea<br><i>Osasun Globala (Osasun Sailaren, Osakidetzaren, eLankidetzaren eta AIDaren jarduketa bateratua Ginea-Bissaun): ekimenaren garapena</i><br><i>Erakundeen arteko ekimena St. Louisen (Senegal): ulermen-memoranduma sinatzea eta ekimen pilotua sustatzea</i> | urtean zehar<br><br>urtean zehar |
| AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN<br><i>Afrikan hezkuntzako ekimen berri bat aztertzea</i>  | bigarren sei hilekoan            |
| AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN<br><i>Energia berriztagarrien arloan ekimena garatzea (Barefoot College International)</i>   | urtean zehar                     |
| AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN<br><i>Afrikako eta Euskadiko eragileen artean esperientziak trukatzeko (INADES)</i>   | bigarren lauhilekoa              |

## 7. Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk

2024 hasieran, 2024-2026 aldirako Ekintza Humanitario Estrategikoaren luzapena onartzea espero dugu. Hala, ekintzak sustatzen jarraituko dugu strategiaren lau ardatzetan, aurrera egiteko puntu hauetan: (i) biztanleriak babestea; (ii) erakundeak indartzea; (iii) herritarrei informatzea eta sentsibilizatzea eta (iv) eLankidetzak duen rola eta beste eragile batzuekiko lankidetzaren indartzea.

### Gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan oinarritutako ekimenak lehenestea

Emandako funtsen % 9 gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan oinarritutako ekimenentzat gordeko dugu.

### Erakunde humanitarioak indartzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Lotura hirukoitzari buruzko ebaluazioa-azterketa  | urtean zehar                   |
| Lotura hirukoitzari buruzko Prestakuntzarako eta Esperientziak Trukatzeke Gunea garatzea. | hirugarren lauhilekoa          |

### Kontuak ematea eta sentsibilizazioa

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--|--------------------------------|
| Parte hartzeko eta kontuak emateko tresnak ezartzeko Euskadiko eta tokiko erakunde humanitarioei laguntzeko bigarren jarduera  | urtean zehar                   |
| Hegoalde-Hegoalde esperientziak trukatzeko, parte-hartzearen eta kontuak ematearen arloan  | bigarren sei hilekoan          |
| eLankidetzak sustatutako ekintza humanitarioaren arloko jarduketan gainean (RASD, dohaintzak eta ahaztutako krisiak) Euskadin sentsibilizatzeko eta kontuak emateko produktu komunikatiboak egitea eta zabaltzea | urtean zehar                   |

### eLankidetzaren rola eta beste eragile batzuekiko lankidetzaren sustatzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Ikaskuntzak zabaltzeko azterketa, gune eta jardunaldietan parte hartzea | dagokionaren arabera           |
| START programa zabaltzea Osakidetzarekin                                | dagokionean                    |

## 8. Herritartasun kritikoa

IV. Gida Planean herritartasun kritikoaren ikuspegia nabarmentzen dugu, baina ez dugu gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko jarduketa-ardatz estrategiko espezifikorik garatzen; izan ere, duela gutxi abian jarri baikenuen (H)ABIAN 2030 euskal estrategia. Nolanahi ere, urteko planean atal hori gehitu dugu, eta lan-arlo horretako ekintza nagusiak zehaztu ditugu. Hain zuzen ere, 2024an, beste gauza batzuen artean, 2025erako aurreikusitako (H)ABIAN 2030en tarteko ebaluazio-prozesua definitu nahi dugu.

### Euskadiko ekintzen lehentasuna

Emandako funtsen % 13 Euskadin garatuko diren ekimen eta ekintzentzat gordeko dugu<sup>1</sup>.

### Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloko ekintzak

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--|--------------------------------|
| (H)ABIAN 2030<br><i>2025eko tarteko ebaluaziorako prozesua prestatzea</i>  | urtean zehar                   |
| <i>AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN: ekintza komunikatibo berriak</i>   | urtean zehar                   |
| Bakearen kulturaren eta hezkuntza eraldatzaileari buruzko VII. Heziketa Topaketa   | maiatza                        |
| Gizarte-Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko VII. Jardunaldiak: hezkuntza-ekintzaren erronkak erakundeen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulazioan. | apirila                        |
| Herritartasun kritikoaren ikaskuntza-lerroa:<br><i>Ekimenei amaiera emateko guneen ondorioen dokumentua (PRO K3)</i>                                 | lehenengo seihilekoa           |
| <i>Informazioa biltzeko metodologiaren eta bilketa-tresnen berrikuspena</i>  | bigarren seihilekoan           |
| Hezkidetzeta-proposamenen ebaluazioa: lizitazioa eta ebaluazioaren garapena  | urtean zehar                   |

<sup>1</sup> Ehuneko hori Euskadin exekutatzeko diren ekintzen da, izan gizarte-eraldaketarako hezkuntzako ekintzak, sektorea indartzeko ekintzak, garapenerako politiken koherentziarakoak, ikerketakoak, ebaluaziokoak edo beste batzuk. Hala ere, atal honetan jarri dugu, Euskadiko ekintzen bolumenik handiena gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren barruan baitago.

## 9. Ezagutza eta ikaskuntza sortzea

IV. Gida Planak ezagutza eta ikaskuntza sortzearen alde egiten du, gure jarduketak eraldatu eta aberasteko asmoz. Ikuspegi horrek eLankidetzaren zeregin guztiak zeharkatzen ditu eta, bereziki, lehentasunezko ardatzak.

### Ezagutzaren kudeaketa-estrategia bat diseinatzea

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--|--------------------------------|
| Ikasteko eta ezagutza sortzeko jarraibide orokorrak eta mekanismoak sortzea <sup>2</sup>   | lehenengo seihilekoa           |
| Ezagutzaren eta ikaskuntzen transferentzia<br><i>Egindako ikerketen eta ebaluazioen zabaltzea</i><br><i>Lau gune</i>   | urtean zehar                   |
| <i>Praktika onak zabaltzeko, esperientziak trukatzeko eta antolatutako prestakuntzarako guneak (ardatz estrategikoetan, zeharkako lehentasunetan eta lehentasun geografikoetan oinarrituta). Zortzi gune</i> | urtean zehar                   |
| <i>eLankidetzaren eta euskal lankidetzaren esperientzia partekatuzko konferentzietan, jardunaldietan eta azterketetan parte hartzea. Hamar parte-hartze</i>  | urtean zehar                   |

### Ebaluazio-planaren diseinua

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Irizpideak eta partekatutako estandarrak definitzea finantzatutako ebaluazio-prozesuentzat        | bigarren seihilekoan           |
| 2024rako aurreikusitako ebaluazio-prozesuen lizitazioak/kontratazioak<br><i>Proiektuen tresna</i> | lehenengo lauhilekoa           |
| <i>Hezkidetzaren proposamenen ebaluazioa</i>  | lehenengo lauhilekoa           |
| <i>Lotura hirukoitzari buruzko ebaluazioa-azterketa</i>   | lehenengo lauhilekoa           |
| IV. Gida Planaren ebaluazioa  | lehenengo seihilekoa           |

<sup>2</sup>Hainbat ardatzetan ikaskuntza-ildoaren ekintza espezifikagoak daude.

Ikerketaren sustapena

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--|--------------------------------|
| eLankidetzak finantzatutako ikerketen eta azterlanen eta aukera-hobien azterketa. Ondorioen dokumentua | lehenengo seihilekoa           |
| Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko hirugarren txostena   | hirugarren lauhilekoa          |
| La Habana Hiriko Historialariaren Bulegoaren eta Euskadiko lankidetzaren arteko harremanaren azterketa | hirugarren lauhilekoa          |

**10. Komunikazioa**

2023an eLankidetzaren 2019-2022rako I. Komunikazio Planaren barne-ebaluazioa amaitu ondoren, 2024an dokumentu estrategiko bat zehaztuko dugu, datorren aldirako gure ekintza komunikatiboentzako esparru gisa. Plangintza berri horrek zehatzago definituko dituen arren lan-ildoak, jarraian zehaztuko ditugu urtean zehar komunikazioaren arloan garatuko ditugun ekintza nagusiak.

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Hurrengo aldirako komunikazioaren arloko dokumentu estrategikoa.  | lehenengo seihilekoa           |
| eLankidetzaren <i>rebrandinga</i>   | bigarren seihilekoan           |
| Komunikazio digitaleko estrategia   | bigarren seihilekoan           |
| Telebista- eta irrati-programazioetako agerraldiak. Berrogei agerraldi  | urtean zehar                   |
| Euskal lankidetzaren balioak eta ekintzak zabaltzeko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak. Zazpi kanpaina | urtean zehar                   |
| Lankidetzaren hitzarmena EITBrekin  | urtean zehar                   |

**11. Plangintza, jarraipena eta ebaluazioa**

2024an, plangintzaren eta ebaluazioaren arloko mugarri nagusia 2018-2024 aldirako IV. Gida Planaren azken ebaluazioa izango da, eta, ondoren, hainbat urterako plangintza estrategiko berria definitzeko eta zehazteko prozesua sustatzea. Gainera, urteko plan honen hainbat ardatz estrategikotan jasotzen den moduan, eLankidetzaren plangintzen barne-ebaluazioa egiteko eta definitzeko hainbat prozesu egingo ditugu.

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b>  |
|---|---|
| eLankidetzaren hainbat urteko plangintza estrategikoa<br><i>IV. Gida Planaren ebaluazioa</i><br><i>Birkokatze estrategikorako dokumentua (plangintzaren oinarriak)</i><br><i>Hainbat urtetako plangintza berria definitzeko eta zehazteko prozesua</i>  | lehenengo seihilekoa<br>lehenengo seihilekoa<br>bigarren seihilekoan                                      |
| eLankidetzaren plangintzen barne-ebaluazioak / barne-berrikuspenak<br><i>Genero Berdintasunerako I. Plana 2021-2024</i>   | bigarren seihilekoan  |
| eLankidetzaren plangintzak<br><i>2024-2026 aldirako Ekintza Humanitario Estrategikoa luzatzea</i><br><i>Hurrengo aldirako dokumentu estrategikoa.</i><br><i>Afrikako lana sustatzeko 2024-2025erako bide-orria</i><br><i>2024-2025 aldirako Babeserako Bide Orriaren eguneraketa</i><br><i>Hala badagokio, 2024-2026 aldirako Genero Berdintasunerako I. Planaren eguneraketa</i> | urtarrila<br>lehenengo seihilekoa<br>lehenengo seihilekoa<br>bigarren hiruhilekoa<br>bigarren seihilekoan |

## 12. Baliabideak

Atal honetan 2024an hainbat arlotan egingo ditugun ekintza nagusiak gehitu ditugu: (i) tresnak berrikustea; (ii) arauak berrikustea lankidetzarako eta elkartasunerako legearen etorkizuneko esparruan; (iii) pertsonen zaintza, prestakuntzari dagokionez bereziki; eta (iv) berrikuntza eta hobekuntza administratiboa.

### Tresnen berrikuspena

| <b>Ekintza nagusiak</b>  | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--|--------------------------------|
| Proiektuen tresnaren kudeaketa hobetzeko orientazioen dokumentua     | bigarren seihilekoan           |
| Pertsonen tresnak berrikustea. Ondorioen eta proposamenen dokumentua | lehenengo seihilekoa           |
| Finantza-lankidetzaren sustatzeko funts pilotua                      | bigarren seihilekoan           |

Araudiaren berrikuspena

| <b>Ekintza nagusiak</b>   | <b>Aurreikusitako egutegia</b>       |
|---|--------------------------------------|
| Hala badagokio, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legea onartu ondorengo araudiaren garapena  | urtean zehar                         |
| Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen araudiaren garapena<br><i>Azterketa juridiko-teknikoa</i><br><i>Araudia garatzeko proposamena</i> | lehenengo seihilekoa<br>urtean zehar |

Pertsonak

| <b>Ekintza nagusiak</b>        | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|--------------------------------|--------------------------------|
| Taldea formatzeko plana egitea | bigarren seihilekoan           |

Berrikuntza eta hobekuntza administratiboa

| <b>Ekintza nagusiak</b>                       | <b>Aurreikusitako egutegia</b> |
|---|--------------------------------|
| Kudeaketa-aplikazioaren etengabeko hobekuntza | urtean zehar                   |

**13. Dirulaguntzen kudeaketa**

Laguntzei eta dirulaguntzei buruzko informazioa eskuragarri dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. Urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 2023ko abenduaren 22ko 21/2023 Legean, eta eLankidetzaren 2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

2024rako, eLankidetzak 56.286.496 euroko aurrekontua du honela banatuta:

|  |                     |
|--|---------------------|
| Pertsonak                                | 2.560.150 €         |
| Funtzionamendua                          | 1.064.218 €         |
| Inbertsioa                               | 0 €                 |
| Dirulaguntza nominatiboak (IZE)          | 3.642.400 €         |
| Aurreko urteetako konpromisoak           | 28.475.733 €        |
| EITBrentzat aurreikusita dagoen ekarpena | 150.000 €           |
| Eselepen berriak (2024ko gastuak)        | 20.393.995 €        |
| <b>Guztira</b>                           | <b>56.286.496 €</b> |

Deialdi berrien lehen ordainketetarako eskuragarri dagoen kopurutik abiatuta, eta tresna bakoitza arautzen duen araudian aurreikusitako ordainketa-sistemaren arabera, 2024an, 54,5 milioi euro banatuko dira garapenerako lankidetzarako 7 deialdi-proiekturen bidez (PRO), hiru ataletan; proiektuak (PRE) eta ekintza humanitariorako estrategiak (EHE); programak (PGM); genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-

aldaketako prozesuak (GBA); espezializazio bekak (BEK) eta Ignacio Ellacuría saria (SAR) eta dirulaguntza zuzenen esleipena (ZUZ). Tresnen artean honela banatuko dira funtsak:

|                |                     |
|----------------|---------------------|
| PRO            | 40.000.000 €        |
| PRE            | 5.600.000 €         |
| EHE            | 4.800.000 €         |
| PGM            | 150.000 €           |
| GBA            | 433.000 €           |
| BEK            | 80.000 €            |
| SAR            | 15.500 €            |
| ZUZ            | 3.431.494 €         |
| <b>Guztira</b> | <b>54.509.994 €</b> |

Garapenerako Lankidetzarako 1/2007 Legearen 5. artikuluan ezarritako lehentasun sektorial bati edo hainbati egin beharko diote ekarpena finantzatutako ekimenek. Eta, zehazki, emakumeen ahalduzera (emandako funtsen % 20 horretarako gordeko dugu) edo giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babesera (emandako funtsen % 4) bideratuta dauden ekimenak lehenetsiko ditugu. Zehatzago, proiektuen deialdien % 10 emakumeentzako proiektuentzat, emakumeen taldeentzat edo emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea xede duten proiektuentzat gordetzen dugu.

Geografiari dagokionez, garapenerako laguntza ofiziala jaso dezaketen herrialdeak hartuko dira kontuan, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) ezarritako irizpideen arabera. Zehazki, Afrikan garatutako ekimenak lehenetsiko ditugu, eta esleitutako funtsen % 25 gordeko dugu horretarako. Ehuneko horretara iristeko, hainbat kuota eta ekintza positibo ezarri ditugu tresnetan:

- Ekintza humanitariorako deialdiaren proiektuen barruan (PRE), 2.800.000 euro gordeko ditugu gutxienez (esleipenaren % 50) Afrikan gauzatzen diren proiektuentzat.
- Ekintza humanitarioaren deialdiaren estrategien lerroan (EHE), Afrikan exekutatu beharreko gutxienez 3 estrategia lagunduko ditugu diruz, puntuazioa gorabehera, eta betiere, dirulaguntzak arautzen dituen araudian eskatzen diren baldintzak betetzen baldin badituzte.
- Proiektuen deialdien (PRO) kasuan, Saharaz Hegoaldeko Afrikan egindako proiektuen deialdiaren funts guztien % 20 gordeko da, hau da, 8.000.000 euro.
- Dirulaguntza zuzenak (ZUZ) esleitzeko eskuragarri dauden funtsetatik gutxienez 1.533.054 euro bideratuko dira Afrikan garatzen diren proiektuetara (esleipen zuzenetara bideratutako emakidaren % 50, URAK eLankidetzari AKUAL programarentzako emandako kopurua kenduta - 365.386 euro-).

Halaber, historikoki Euskadirekin lankidetzan aritu diren hainbat herrialde eta lurralderen egungo koiuntura dela eta, lehentasuna emango zaio demokrazia, giza eskubideak eta trantsizio-justizia indartzeari dirulaguntza bidez finantzatutako ekimenetan.



Gainera, arlo humanitarioan, lehentasuna emango diegu gatazka-testuinguruei eta beste indarkeria-egoera batzuei, eta emandako funtsen % 9 gordeko dugu horretarako. Horrez gain, larrialdi-egoerei erantzuteko, Nazio Batuen edo beste funts global batzuen deialdiei funtsak eskaintzeko aukera aztertuko dugu. 2024ko aurrekontuan berrikuntza izango da 500.000 euro bideratuko direla dirulaguntza zuzenen (ZUZ) partidara, nazioarteko organismoen eta erakunde humanitarioen deialdi humanitarioetarako.

Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren lana ere babesten jarraituko dugu. Emandako funtsen % 13 gutxienez Euskadin garatzen diren ekintzentzat izango da.

Zeharkako ikuspegiak dira eLankidetzak sustatutako lankidetzaren elementu bereizgarrietako batzuk. 2024an, arlo hauek sustatzen jarraituko dugu: (i) tokiko gaitasunak hobetzea, biztanleria subjektuaren parte-hartzea eta antolakuntza; (ii) genero-berdintasuna; (iii) giza eskubideen ikuspegia; (iv) jasangarritasun ekologikoa; eta (v) ikuspegi tokikoa-globala.

Ekimenak lurraldeetako tokiko erakundeen bitartez egingo dira. Eta, zehazki, emandako funtsen % 10 gordeko dugu tokiko erakunde bazkide feministentzat.

Azkenik, plan hau onartzeko 2024ko urtarrilaren 29ko Kontseilu Errektoreko saioan adostu da erakunde eskatzaile bakoitzak esleitu daitezkeen funtsen % 7 jaso ahal izango duela gehienez ere. Argitaratzen den lehen deialdian emango da kopuru horren berri. Gainera, saio horretan 2024rako dirulaguntzen eta subentzioen deialdien irizpide orokorrak eta 2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu dira.